

DIRULAGUNTZA-DEIALDIA, DURANGOKO ESTABLEZIMENDUETAN HIZKUNTZA-PAISAIA EUSKARATZEKO.

Durangoko Udalak oso garrantzitsu irizten dio erakunde publiko eta pribatuen hizkuntza-paisaia euskaraz egoteari. Horrexegatik hain zuzen, aurrekontu-partida bat ezarri du aipatutako kontzeptuak diruz laguntzeko.

Honela, Durangoko Udalak hizkuntza-paisaia euskaraz jartzen dutenei dirulaguntzak emateko deialdia arautu du. Neurri horrekin, euskara idatziaren erabilera esparru pribatura zabaltzeko, euskara idatziaren presentzia indartzeko diskriminazio positiboaren irizpideak aintzat hartuta eta, honela, gure herriko hizkuntza-paisaia euskaldunago bihurtzeko; halaxe agertzen baita Durangoko Udalak onartutako Euskararen Erabilera Indarberritzeko AROA Planean (2025-2028).

1. Artikulua. Xedea

Ebazpen honen xedea da Durangoko Udalaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezartzea, norgehiagoka erregimenean, 2026 urtean zehar, Durangoko establezimenduetan hizkuntza-paisaia euskaraz jartzeagatik. Eta hau guztia, kontuan izanik Durangoko Udalaren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 8. artikulua ezartzen duena.

Ondorengoak dira diruz lagun daitezkeen gastuak:

3.1. Kanpoko errotuluak euskaraz jartzea. Kanpoko errotulazioa diogunean, haxe hartzen da kontuan: lokalaren kanpoaldean jarritakoa eta, halaber, toldoetan eta ibilgailu komertzialetan jarritakoa.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko negozioko titularraren izena edo izen-deiturak baino agertzen ez dituzten errotuluak.

3.2. Gainerako irudi korporatiboa euskarara egokitzea. Irudi korporatibotzat hartzen dira gutun-azalak, idazpurua duten orriak, bisita-txartelak, erakundearen identifikazio-zigilua, albaranak eta fakturak, euskaraz edo euskaraz/gaztelaniaz.

3.3. Idatzizko komunikabideetan (egunkariak, aldizkariak, etab.) euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz egindako publizitatea.

3.4. .eus domeinua hartzea.

3.5. Euskarazko web-orriak euskaraz jartzea.

2. artikulua. Izaera eta erregimen juridikoa

Azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko du diru-laguntza, lege horren 22.1 artikuluekin bat etorruta. Aipatutako diru-laguntza Durangoko Udalaren 2025eko Aurrekontuetan aurreikusita dago, 2025-2027 Diru-Laguntzen Plan Estrategikoaren barruan, 2024ko abenduaren 19ko Osoko Bilkuran onetsia, eta bertan informazio hau dago:

Kodea: 1.3350.2.EWO

Diru-laguntza: Errotuluak eta web orriak euskaraz jartzeko dirulaguntza-deialdia

Zenbatekoa: 5.000€

Partida: 61.3350.47101

3. Artikulua. Onuradunak

Dirulaguntza hauen subjektu onuradunak honako hauek izan daitezke: euren establezimendua Durangon kokatuta daukaten merkatariak eta ostalariak eta, halaber, udalerri mailako elkarteak.

Aurreko urteetan dirulaguntzak jaso zituzten erakundeak eta elkarteak ere aurkeztu ahal dira aurtengo dirulaguntza-deialdira. Horretarako, aurreko dirulaguntza jaso zutenetik egindako berrikuntzen berri eman beharko dute.

Dirulaguntza-deialdi honen objektu izan daitezkeen elementu guztien kasuan, testuak zuzen idatzita beharko du egon eta Udaleko Euskara Sailak aholkua eskainiko die hala eskatzen dutenei.

Erakunde onuradunek egunean egon beharko dute Durangoko Udalaren eta beste administrazio publiko batzuen zerga, tasa, arbitro eta zehapenen ordainketan.

4. Artikulua. Aurkezteko lekua eta dokumentazioa

Eskariak Udaleko **egoitza elektronikoaren bidez** aurkeztu behar dira.

Eskariari dokumentazio hau erantsi behar zaio:

- a) Dirulaguntza-eskari normalizatua.
- b) Eskatzailearen NANA.
- c) Euskarara egokitutako hizkuntza-paisaiaren elementuen argazkia: kanpoko errotiluak, toldoak, ibilgailuak, irudi korporatiboko elementuak, publizitatea, etab. Web orrien kasuan: beronen helbide elektronikoa.
- d) Errotulu, irudi korporatiboko elementu, publizitate, domeinu edo web-orriari dagozkien gastuen fakturak.

Durangoko Udalak, Bizkaiko Elkarreragingarritasunerako Nodoaren bidez eta dagozkion elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, laguntza honen administrazio-izapideak egiteko eskatzen diren eskatzaileen datuen beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu.

Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Durangoko Udalak izapideak egiteko beharrezkoak diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Edozein kasutan, aurreikusitako ekimenari dagokion dokumentazioaz gain, entitate eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie aurkeztutako ekimena behar bezala baloratu ahal izateko.

5. Artikulua. Epeak

Dirulaguntza-eskariak aurkezteko azken eguna **2026ko urriaren 30** izango da.

Eskariak ebazteko gehieneko epea 2026ko azaroaren 30a izango da.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Halaber, jakinaraziko zaio, hala egiten ez badu, eskarian atzera egindakotzat joko dela, eta hala ebatziko da 2015eko urriaren 1eko Administrazio Publikoen

Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 68. artikulua aurreikusten dituen terminoen arabera eta, aintzat hartuta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.5 artikulua ezartzen duena.

6. Artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Eskatzaileen artean banatuko den gehieneko zenbatekoa BOST MILA (5.000,00) euro da. Gastua 61.3350.47101 aurrekontu-partidaren kargura egingo da.

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuk xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, dirulaguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharizanen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Durangoko Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

7. Artikulua. Esleipenerako irizpideak

1. Kanpoko errotuluak:

- Kanpoko errotuluak euskaraz jartzeagatik (toldoak eta ibilgailuak barne): % 50eko dirulaguntza emango da. Gehienez ere, 800 euro jaso ahal dira.
- Errotuluak euskaraz eta gaztelaniaz jartzeagatik:
 - a) % 25eko dirulaguntza jasoko dute ele bietan dauden errotuluek. Gehienez ere, 500 euro jaso ahal dira.
 - b) % 30eko dirulaguntza jasoko dute euskara lehenesten duten errotuluek. Gehienez ere, 600 euro jaso ahal dira.

2. Irudi korporatiboari dagozkion bestelako elementuak:

- Euskaraz jartzeagatik: % 50eko dirulaguntza emango da. Gehienez ere, 300 euro jaso ahal dira.
- Euskaraz eta gaztelaniaz jartzeagatik:
 - a) Elementu elebidunei % 25eko dirulaguntza emango zaie. Gehienez ere, 150 euro jasoko dira.
 - b) Euskarari lehentasuna ematen dioten elementuei % 30eko dirulaguntza emango zaie. Gehienez ere, 200 euro jasoko dira.

3. Idatzizko komunikabideetan (egunkariak, aldizkariak, etab.) euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz egindako publizitatea.

- Publizitatea euskaraz bakarrik egiteagatik: % 50eko dirulaguntza emango da. Gehienez ere, 175 euro jaso ahal dira.
- Publizitatea euskaraz eta gaztelaniaz egiteagatik:
 - a) Publizitate elebidunei % 25eko dirulaguntza emango zaie. Gehienez ere, 100 euro jasoko dira.
 - b) Euskarari lehentasuna ematen dion publizitateari % 30eko dirulaguntza emango zaie. Gehienez ere, 150 euro jasoko dira.

4. .eus domeinuaren urteko kuotaren erdia.

5. Web-orriak:

- Webaren hasiera orria euskaraz agertzeko lehenetsita badago, % 30eko dirulaguntza emango da. Gehienez ere, 600 euro jaso ahal dira.
- Webgunea euskaraz eta gaztelaniaz: % 25eko dirulaguntza emango da. Gehienez ere, 500 euro jaso ahal dira.

8. Artikulua. Instrukzioa eta ebazpena

Ebazteko organo eskuduna alkatea edo hark eskuordetzen duena izango da, eta hark emango du ebazpena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako instrukzio-egintzak egin ondoren. Hona nola:

- a) Eskabidea aurkezteko unean, dokumentazioa osatuta dagoela egiaztatuko da zerbitzu kudeatzaile gisa. Eskabideak ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako baldintzak, interesdunari eskatuko zaio hamar (10) egun baliouduneko gehieneko epe luzaezinean zuzen dezala, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean aurreikusitako baldintzetan emandako ebazpenaren ondoren.
- b) Eskabideak alkateak edo hark eskuordetutako pertsonak ebatziko ditu, beranduenez azaroaren 30ean. Eskabideen berri sozietate kudeatzaileak emango du, eta, hala badagokio, Herrigintza Saileko Informazio Batzordearen emakida-proposamenarekin batera aurkeztuko dira.

Aipatutako data igaro ostean ebazpenik jaso ezik, ulertu behar da eskaria gaitzetsi egin dela, gerora egin daitekeen ebazpenaren kaltetan izan gabe.

9. Artikulua. Diru-laguntza ordaintzea

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, ordainketa egingo da.

10. Artikulua. Betebeharrak

Dirulaguntzaren ezaugarriak kontuan izanda, hau da, kontzesioa gastua egin ostean egiten denez, ez dira zertan bete Durangoko Udalaren Diru-laguntzen eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak, diru-laguntzaren justifikazioa barne.

11. Artikulua. Itzultzea

Dirulaguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitu Durangoko Udalaren diru-laguntzen eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 16. artikulua eta, betiere, Ordenantza bereko 17. artikulua arautzen duen prozedura jarraituz.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Halaber, dirua itzultzeko zioak dira Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36 eta 37 artikuluetan jasotako guztiak.

12. Artikulua. Araudi Osagarria

Dirulaguntza honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Durangoko Udalaren Diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza; dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki erregimeneko araudi bateragarria.

13. artikulua. Datuen babesa

Durangoko Udalak euskararen erabilera sustatzeko politikak normalizatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko planen kudeaketaren esparruko datuak tratatzen ditu, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen arabera. Datu pertsonalak Udal Euskaltegiari eta arloan eskumena duten beste Administrazio Publiko batzuei jakinarazi ahal izango zaizkie, hala nola Eusko Jaurlaritzari. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuon tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubidea ere, Udalaren helbidera edo dpo@durango.eus helbide elektronikora komunikazio bat bidalita. Halaber, informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gardentasun-ataria: www.durango.eus